

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Angel Otaegi Etxeberria herri honetako bizilaguna Erregimen Frankistak exekutatu zuen Burgosen 1975eko irailaren 27an.

1974ko azaroaren 18an atxilotu zuten bere etxean, eta haren aurkako gerra-kontseilua 1975eko abuztuaren 28an egin zen. Prozesua, epaia eta exekuzioa agintari frankistek adostutako politika errepresiboaren testuinguruan gertatu ziren. Bidezko prozesu batek bete beharreko printzipioak urratzen zituen prozesu horrek, betiere giza eskubideak babesteko nazioarteko tresnetan ezarritakoaren arabera. Sumarioko material dokumentalaren elementu asko falta dira, baina haren azterketak argi uzten du, alde batetik, froga objektiboak falta zirela, eta, bestetik, komunikazio zuzena izan zela agintari judizial militarren eta Armadako Ministroaren beraren artean. Interkomunikazio horrek nabarmen uzten du Gobernu frankistak esku-hartze zuzena izan zuela Otaegi exekuziora eraman zuten ebazpen judizialean.

Bai epaia bai exekuzioa zalantzan jarri ziren judizialki eta sozialki. Manifestazioak egin ziren epaiketaren prozeduraren aurka, epaiaren aurka eta haren ondorioz erabakitako fusilamenduaren aurka.

Angel Otaegi Etxeberriaren exekuzioak bizitzeko eskubidea urratzen du, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak jartzen duen moduan.

Giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten pertsona guztiek dute egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eta memoriaren parte izateko eskubidea, halaxe ezartzen baitute 2005eko abenduaren 16an Nazio Batuetako Batzar Orokorrak onartutako oinarritzko printzipio eta jarraibideek: *"Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabarien eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsioak jarri eta erreparazioak lortzeko duten eskubideari buruzko Oinarritzko Printzipio eta Jarraibideak"*.

Memoria publikoaren politika egiteak ondorio bat dakarkio Azpeitiko Udalari: bere ekimen guztiak giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak ezarritako printzipio etikoetan egituratuko dira, baita adierazpen hau ere.

Horrenbestez, erantzukizun instituzional horretatik abiatuta, udal honen borondatea da memoria publikoaren politika bat egitea, eta horren bidez egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eta memoriaren parte izateko eskubidea betetzea. Eta hori Angel Otaegi Etxeberriari egindako aitortzazko erakunde adierazpen honetan gauzatzen da, bere ondare preziatuena kendu ziotelako: bizitza.

Aurrez adierazitakoari herriko testuingurua erantsi behar zaio. Azpeitiko Udala, 2013. urtetik hona, apustu garbia ari da egiten memoria historiko eta demokratikoaren esparruan, egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidean sakontzeko. Azpeitia izan da 1936ko gerratik hasi eta gaur egunera arteko memoriari buruzko ikerketa osoa

egin duen Hego Euskal Herriko lehen udalerria. Memoria historikoa berreskuratuz, frankismoaren errepresioa eta azken hamarkadetako biolentzia politikoa ikertu ditu, eta giza eskubideen urraketak eta biktimak identifikatu.

Gauzatutako ekintza zehatzei dagokienez, honako hauek aipa daitezke: liburuak, omenaldiak hitzaldiak, erakusketak antolatu ditugu, irailaren 19a Azpeitiko memoriaren egun gisa instituzionalizatu, Loiolan oroimenerako gunek bat egokitu; azpeitiaoroimena.eus ataria sortu...

Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketan eta sufrimendu bidegabeen biktimak ebaluatzeko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak sortutako batzordeak 2012an, biktima izaera onartu zion Otaegiri, heriotza-zigorra jaso zuen gerra-kontseiluan epaiketa justu baterako eskubidea urratu zitzaiolako.

Gaur, Angel Otaegi Etxeberriaren fusilamenduaren 50. urteurrenean, aitortzazko adierazpen instituzional indibidualizatu hau egingo dugu. Berandu datorren adierazpen bat, seguru asko. Urte luze hauetan erakundeek ahanztura instituzionala eragin dute, eta ez dira eskubide nagusien bermatzaile izan. Horrenbestez, adierazpen honek zera nahi du: Angel Otaegi Etxeberriarekin eta bere familiarekin daukagun zor morala kitatu.

Aipamen berezia egiten diogu bere familiari eta jasan duen sufrimendu gehigarriari. Familiarengana hurbildu nahi dugu erantzukizunez, egiaz eta enpatiaz.

Gure nahia da adierazpen hau ahots politiko guztien adierazle bateratua izatea, Angel Otaegi Etxeberriari egindako injustiziaren aurrean elkartasun eta gizatasun adierazpen bat izatea, eta, erakunde publiko bezala daukagun erantzukizunetik, aitortza eta erreparazioa lortzeko gogoeta bat izatea.

Eskubideak errespetatuz eta urraketak baztertuz eraiki behar da memoria. Horregatik Udal honen nahia eta konpromisoa da lanean jarraitzea azpeitiarrok gure antzinako eta iragan hurbileko historiako edozein unetan jasandako urraketa guztiak aitortu eta erreparatzeko.

Iraganak ezin du aitzakia izan bizikidetzaren bidea ez egiteko. Espero dugu jokabide horrek bakearen eta giza eskubideen kultura sustatzea, eta oinarri sendoak finkatzea Azpeitian bakezko eta bizikidetzazko etorkizun bat eraikitzen jarraitzeko.